## 2026. URTEAN GIZARTE ETA KULTUR JARDUERAK ANTOLATZEKO ETA EUSKARA SUSTATZEKO ESTERIBARKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

Esteribarko Udalak laguntzak emango ditu jarduerak antolatzeko honako baldintza hauen arabera:

**OINARRIAK**

**1.- HELBURUA ETA XEDEA**

Esteribarko Udalaren ustez, esparru soziokulturala bultzatzeko eta sustatzeko moduetako bat da tokiko gizarteak irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeen bidez sortzen dituen ekimen eta jarduerak babestea.

Deialdi honen helburua da Esteribarren eginkizun egonkorra duten eta udalaren ekintza osatzen duten tokiko elkarteak ekonomikoki laguntzea. Diruz lagundu daitezkeen egitasmoak 2025ean Esteribarko herritarrei zuzendutako gizarte eta kultura-jarduerak eta euskara sustatzekoak izanen dira, ibarreko gizarte bizitzan parte hartzea sustatzen dutenak.

**2.- AURREKONTU-IZENDAPENA**

Laguntza horiek Esteribarko Udalaren 2025. ekitaldirako dituen aurrekontu-partiden kargura ordainduko dira: 3340-4820001 soziokulturalak

**3.- LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK**

**3.1- ELKARTEEI DAGOKIENEZ:**

a. Eskabidea aurkezten den egunean legez eratuta egotea.
b. Egoitza soziala Esteribarren izatea.
c. Elkarteen Erregistroan izena emanda egotea (edo eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen izena emanda izatea) eta erregistroko datuak eguneratuta izatea.
d. Udalarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
e. Elkartearen xedeak zuzeneko lotura izatea dirulaguntzaren xedearekin.

## CONVOCATORIA 2026 DE SUBVENCIONES A ASOCIACIONES DE ESTERIBAR PARA LA ORGANIZACIÓN DE ACTIVIDADES SOCIOCULTURALES Y PROMOCIÓN Y USO DEL EUSKERA

El Ayuntamiento de Esteribar concederá ayudas para la organización de actividades conforme a las siguientes

**BASES**

**1.- FINALIDAD Y OBJETO**

El Ayuntamiento de Esteribar entiende que uno de los modos de impulsar y fomentar el ámbito sociocultural es mediante el apoyo a las diversas iniciativas y actuaciones que la sociedad local genera a través de sus asociaciones y entidades sin ánimo de lucro.

La presente convocatoria tiene por objeto apoyar económicamente el desarrollo de las asociaciones locales con función estable en Esteribar que complementan la acción del ayuntamiento. Los proyectos susceptibles de ser subvencionados se referirán a actividades socio-culturales y de promoción y uso del euskera realizadas en 2025 que estén dirigidas a la población de Esteribar y que fomenten la participación en la vida social del valle.

**2.- CONSIGNACION PRESUPUESTARIA**

Estas ayudas se abonarán con cargo a las partidas presupuestarias del Ayuntamiento de Esteribar para el año 2025 números: 3340-4820001 socioculturales

**3.- REQUISITOS PARA LA SOLICITUD DE AYUDAS**

**3.1- DE LAS ASOCIACIONES:**

a. Estar legalmente constituida en la fecha de presentación de la solicitud.
b. Tener su domicilio social en Esteribar.
c. Estar inscrita en el Registro de Asociaciones (o tener solicitada la inscripción antes de la finalización del plazo de presentación de solicitudes) y tener los datos del registro actualizados.
d. Estar al corriente de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social y de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.
e. Que su objeto social tenga relación directa con el objeto de la subvención.

**3.2- DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN JARDUERAK:**

a. Publikoak izatea eta jardueraren xede den kolektiboko Esteribarko bizilagun guztiei irekita egotea. Horretarako, behar bezala jakinaraziko zaizkie Esteribarko biztanle guztiei.

b. Aurkeztutako jarduerak ekonomikoki bideragarriak izanen dira, aurrekontu orekatua izanen dute. (I. eranskina)

c. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak: dantza, musika, antzerkia, arte plastikoak, historia-, gizarte- eta kultura-ondarearen zabalkundea, bertako kultura ezagutzera zuzendutako jarduerak, berdintasuna, aniztasuna, gazte-jardueren sustapena, gizartearen eta herritarren parte-hartzea, jarduera fisikoa eta antzekoak sustatzen dituztenak.

**3.3.- Deialdi honetatik kanpo geratzen dira:**

a. Antolatzaileen dietak, kilometroak, opariak, hamaiketakoak, bazkariak, askariak...

b. Elkartearen beraren gastu orokorrak, mantenimendukoak edo materialak.

c. Interes kultural eta sozial berezirik ez duten bidaiak.

d. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak diren helburuak, onarpen-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo jarduera dituzten elkarteak.

e. Elkarteek antolatzen dituzten jarduerak, izena emanda dauden ibarreko herriko jaiekin bat badatoz.

f. Kultura, Gazteria eta Euskara zerbitzuek eta Zubilan S.L.k antolatutako tipologia bereko jarduerak

**4.- ESKABIDEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

4.1.- Eskaerak Udaleko Erregistroan aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik **hiru hilabeteko epean**.

Eskaerak jarraian adierazitako baldintzak betetzen ez baditu, elkarte interesatuari eskatuko zaio hamabost egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko dela.

**3.2- DE LAS ACTIVIDADES SUBVENCIONABLES:**

a. Ser públicas y estar abiertas a todas las personas vecinas de Esteribar que se encuentren en el colectivo al que va dirigida la actividad. Para ello, se publicitarán de forma suficiente a la totalidad de la población de Esteribar.

b. Las actividades presentadas serán económicamente viables, contendrán un presupuesto equilibrado. (Anexo I)

c. Tipo de actividades subvencionables: actividades relacionadas con la danza, la música, teatro, las artes plásticas, la difusión del patrimonio histórico, social y cultural, actividades dirigidas al conocimiento de la cultura propia, las que fomenten la igualdad, la diversidad, la promoción de actividades juveniles, la participación social y ciudadana, la actividad física y otras análogas.

**3.3- Quedan excluidas de la presente convocatoria:**

a. Dietas, kilometraje, obsequios, almuerzos, comidas, meriendas… de personas organizadoras.

b. Gastos generales, de mantenimiento o materiales de la propia asociación.

c. Los viajes a los que no se les aprecie un especial interés cultural y social.

d. Las asociaciones cuyos fines, sistema de admisión, funcionamiento, trayectoria o actuación sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

e. Aquellas actividades que se organicen por las asociaciones en fechas coincidentes con las fiestas populares del pueblo del Valle en el que figuren inscritas.

f. Actividades de la misma tipología organizadas tanto por los servicios de Cultura, Juventud y Euskera, así como las realizadas por Zubilan S.L."

**4.- SOLICITUDES Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**

4.1- Las solicitudes se presentarán en el Registro del Ayuntamiento en un plazo de **tres meses** a contar desde la publicación del anuncio de convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra.

Si la solicitud no reúne los requisitos señalados a continuación, se requerirá a la Asociación interesada para que, en un plazo de quince días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, y previa resolución, se le tendrá por desistido de su petición.

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

1. Eskabide-orria, behar bezala beteta.
2. Eskabide-eranskina jarduera bakoitzeko (I. eranskina)
3. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ordaintzeko elkartearen kontu-zenbakia.
4. Erakunde publiko edo pribatu baten beste diru-sarrera edo laguntza ekonomikorik jaso den edo eskatu den azaltzen duen aitorpena.
5. Eguneratutako ziurtagiriak, Udalarekiko zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta zerga-betebeharrak eguneratuak dituztela frogatzen dutenak.

Eskabidea eta eranskinak udal bulegoetan edo udal web orrian jaso daitezke: www.esteribar.org

**Documentación a presentar:**

1. Instancia de solicitud debidamente cumplimentada.
2. Anexo de solicitud por actividad (Anexo I).
3. Número de cuenta de la asociación en el que se desea que se abone el importe de la subvención otorgada.
4. Declaración que exponga si ha existido o se ha solicitado otro ingreso o ayuda económica de entidad pública o privada.
5. Certificados actualizados que demuestren estar al corriente de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social y las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento.

La instancia y los anexos se podrán recoger en las oficinas municipales o en la página web municipal: www.esteribar.org

**5.- BALORAZIOA**

5.1. Eskabideen balorazioa Udaleko Kultura Zerbitzuak eginen du Euskara Zerbitzuarekin batera, 5.3 puntuan adierazitako irizpideen arabera. Dirulaguntzak Alkatetzaren ebazpen bidez emanen dira, eskaerak aurkezten direnetik 20 egun balioduneko epean gehienez.

5.2. Eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, nolanahi ere, dirulaguntzaren xede diren jarduerak gauzatzearen eta jarduera horien benetako kostuaren mende egonen da.

5.3. Dirulaguntzak emateko balorazioa eta proposamena irizpide hauen arabera eginen da:

-Proposamenaren koherentzia, helburuei, jarduerei eta aurrekontuari dagokienez.
-Jarduerak gizartean duen interesa eta eragina.
-Euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzea.
-Esteribarko herri guztietako bizilagunen arteko inklusioa eta ibarreko kohesioa sustatzea.
-Sormena eta izaera berritzailea.
-Publiko-mota eta jardueren hartzaile diren pertsonen kopurua.
-Berdintasuna eta genero arteko berdintasunaren inklusio-mailaren sustatzea.
-Kultura-aniztasunaren sustatzea.
-Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta sentsibilizazioa.
-Ingurumen-iraunkortasuna sustapena.

**5.- VALORACIÓN**

5.1. La valoración de las solicitudes se realizará conforme a los criterios indicados en el punto 5.3 por el Servicio de Cultura del Ayuntamiento en colaboración con el Servicio de Euskera. La concesión de las subvenciones se realizará por resolución de Alcaldía en un plazo máximo de 20 días hábiles desde que se hayan presentado.

5.2. El importe estimado de la subvención a conceder estará en todo caso supeditado a la efectiva realización de las actividades para las que se solicita la subvención y al coste real de las mismas.

5.3. La valoración y propuesta de concesión de subvenciones se realizará con base en los siguientes criterios:

- Coherencia de la propuesta en cuanto a sus objetivos, actividades y presupuesto.
- Interés y la repercusión social de la actividad.
- Fomento de la normalización y el uso del euskera.
- Fomento de la cohesión del valle e inclusión de la vecindad de todas las poblaciones de Esteribar.
- Creatividad y carácter innovador.
- Tipo de público y número de personas al que va destinada la actividad.
- Fomento de la igualdad y nivel de inclusión de la igualdad entre sexos.
- Promoción de la diversidad cultural.
- Inclusión y sensibilización hacia las personas con discapacidad.
- Fomento de la sostenibilidad medioambiental.

**6.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA**

6.1.- Emandako dirulaguntza jarduerareren aurrekontuaren %60koa izanen da.

Beste erakunde edo entitate batzuen dirulaguntzak jasotzen badira, Udalak diruz lagundu ahal izango duen zenbatekoa beste dirulaguntza horiek estaltzen ez duten zenbatekoaren gainean kalkulatuko da, eta ez jarduerearen aurrekontu osoaren gainean.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko orduan, inskripzio-kuotetatik lortutako diru-sarrerak ez dira bestelako diru-sarrera, baliabide edo finantzaketa gisa kontuan hartuko. Diru-sarrera horiek jarduerearen diruz lagungarri ez den zatia gainditzen badute, Udalak diruz lagundutako zenbatekoa murriztu egingo da, gainfinantzaketarik egon ez dadin.

6.2.- Aurrekontuan baliagarri dagoen dirua eta eskabide kopurua kontuan hartuta, beharrezkoa balitz, onuradun bakoitzari dagokion ekarpena proportzionalki gutxituko litzaioke.

6.3. Dirulaguntzaren gehieneko muga elkarte bakoitzeko 3.000 eurokoa da.

**7.- BETEBEHARRAK**

Elkarte onuradunek betebehar hauek izanen dituzte:

- Jasotako dirulaguntza soilik deialdi honetan diruz lagundutako jarduera-programa egiteko erabiltzea lagundutako jarduerak egitea.
- Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jardueren garapenean gertatuako aldaketa garrantzitsuak.
- Egitarauetan, karteletan, iragarkietan edo edozein motatako publizitatean aipatzea jarduera Esteribarko Udalaren laguntzarekin egin dela. Aipamen hori Udalaren logo ofizialen arabera egingo da: *https://www.esteribar.org/logos* (fikziozko esteka) logo, funtsarekin eta funtsik gabe.

**6.-CUANTÍA DE LAS AYUDAS**

6.1.- La subvención concedida será del 60% del presupuesto de la actividad.

Si se recibieren subvenciones de otros organismos o entidades, la cuantía que el Ayuntamiento podrá subvencionar se calculará sobre el importe no cubierto por aquellas otras subvenciones y no sobre el total del presupuesto de la actividad.

Los ingresos obtenidos por cuotas de inscripción no se contemplarán como otros ingresos, recursos o financiación para el cálculo de la obtención de la subvención. En el supuesto de que dichos ingresos superen la parte no subvencionable de la actividad, el importe subvencionado por el Ayuntamiento se reducirá de manera que no haya sobrefinanciación.

6.2.- En función de la disponibilidad presupuestaria y del número de solicitudes, si fuera necesario se disminuirá de forma proporcional la aportación que corresponda a cada beneficiario.

6.3.- El límite máximo de subvención por asociación es de 3.000 euros.

**7.- OBLIGACIONES**

Las asociaciones beneficiarias quedarán obligadas a:

- Destinar la ayuda exclusivamente a la realización del programa de actividades subvencionado dentro de esta convocatoria.
- Comunicar al Ayuntamiento los cambios relevantes surgidos en el desarrollo de las actividades subvencionadas.
- Mencionar en el programa, cartel, anuncios o publicidad de cualquier tipo que la actividad se ha realizado con la colaboración del Ayuntamiento de Esteribar. Esta mención se hará de acuerdo con los símbolo oficiales del Ayuntamiento: https://www.esteribar.org/logos (enlace ficticio) *logo con y sin fondo*

- Propagandaren zabalkundea Esteribarko herritar guztientzat baldintza berdinetan egiten dela bermatzea.
- Jarduerak zabaltzeko erabilitako publizitate-euskarri guztiak elebidunak izatea eta euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egotea, eta hizkuntza eta irudi inklusiboa izatea. Baldintza hori betetzen laguntzeko, elkarteen esku jartzen da Udaleko Euskara Zerbitzuaren itzulpen eta zuzenketa zerbitzua: euskara@esteribar.org.
- Esteribarko Udalari jakinaraztea beste diru-laguntza, diru-sarrera, bestelako laguntza edo baliabide batzuk lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako dirulaguntzaren erabilera justifikatu aurretik.

**8.- GASTUEN JUSTIFIKAZIOA ETA JARDUEREN MEMORIA**

Egindako jardueren justifikaziorako dokumentazioa Udalaren erregistroan aurkezteko azken eguna **2027ko urtarrilaren 20a** izanen da.

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

1. Justifikazio-eranskinak (II. eranskina), behar bezala beteta eta pertsona eskudunak sinatuta, honako kontzeptu hauekin: egindako jardueraren deskribapena, parte-hartzaile mota eta kopurua, ebaluazio orokorra, jarduerari dagozkion gastuak eta diru-sarrerak.
2. Gastuen fakturak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak). Bertan agertu beharko dute: izen-abizenak, IFZ, kontzeptua eta zenbatekoa.
3. Jarduera bakoitza hedatzeko erabilitako eskuorrien, kartelen edo bestelako publizitate-euskarrien kopiak.

Diruz lagundu ezin den zatia izen-emateetako kuotekin finantzatuko den jardueretan, erabiltzaile bakoitzari kobratu beharreko zenbatekoa adieazi beharko da hura iragartzen duen liburuxka-kartelean.

- Garantizar que la difusión de las actividades sea accesible en igualdad de condiciones para toda la población de Esteribar.
- Asegurar que todos los soportes publicitarios utilizados para dar difusión a las actividades sean bilingües y vayan redactados en euskera y castellano, y presenten un lenguaje e imagen incluyente. Para ayudar a cumplir este requisito se pone a disposición de las asociaciones el servicio de traducción y corrección del Servicio de Euskera municipal euskara@esteribar.org
- Comunicar al Ayuntamiento de Esteribar la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación de los fondos percibidos.

**8.- JUSTIFICACION DE GASTOS Y MEMORIA DE ACTIVIDADES**

El último día para presentar en el registro del Ayuntamiento la documentación de justificación de actividades realizadas será el **20 de enero del año 2027.**

**Documentación a presentar:**

1. Anexos de justificación (Anexo II) debidamente cumplimentado y firmado por persona competente con los siguientes conceptos: descripción de la actividad realizada, tipo y número de participantes, evaluación general, gastos e ingresos relativos a la actividad.
2. Facturas de gastos (originales o fotocopias compulsadas) en las que deberá aparecer: nombre y apellidos, NIF, concepto e importe.
3. Copias de los folletos, carteles u otro tipo de soportes publicitarios utilizados para la difusión de cada una de las actividades.

En las actividades en las que se vaya a financiar la parte no subvencionable con cuotas de inscripción, deberá reflejarse la cuantía correspondiente a cobrar cada usuaria/o en el folleto-cartel anunciador del mismo.

Ayuntamiento de Esteribar | Esteribarko Udala

**9.- EBAZPENA**
8. oinarrian aipatzen diren frogagiriak aurkeztu ondoren, hala badagokio, gastua onartu eta gainerako zenbatekoa (%30) ordainduko da Alkatetzaren ebazpen bidez, edo hasieran emandako dirulaguntza berregokitu edo aldatu eginen da, programatutako jardueren betetze-mailaren eta horien gastuaren justifikazioaren arabera.

**10.- ORDAINTZEKO MODUA**
Ordainketak honela eginen dira:
- % 70, gehienez, 30 eguneko epean, dirulaguntza ematen denetik hasita, aurrerapen gisa.
- Gainerako % 30a gehienez ere 30 eguneko epean, 8. oinarrian aipatutako frogagiriak aztertzen diren egunetik hasita.

**11.-EZ BETETZEAK**
Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, aldaketak egin ahal izanen dira dirulaguntza emateko ebazpenean. Jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko da honako kasu hauetan:
a. Diruz lagundutako jarduerak ez justifikatzea
b. Deialdi honetako baldintzak ez betetzea.

**12.- DATUEN BABESA.**
Laguntza hauek eskatzen dituztenek baimena ematen diote Esteribarko Udalari deialdian ezarritako helburuak betetzeko behar diren datu pertsonalak biltzeko.

Apirilaren 27ko 2016/679 EB DBEOren arabera, jakinarazten dizugu Esteribarko Udalak, deialdi honetara sartzeko bidaltzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna den aldetik, datu horiek tratamenduarekin lotutako izapide guztietarako soilik erabiliko dituela, eta ez dela aurreikusten datuak

**9.- RESOLUCIÓN**
Presentada la documentación justificativa a la que se hace referencia en la base núm. 8, se procederá en su caso, a la aprobación del gasto y al abono del importe restante (30%) por resolución de Alcaldía o bien al reajuste o modificación de la subvención inicialmente otorgada, en función del grado de cumplimiento de las actividades programadas y de la justificación del gasto de las mismas.

**10.- MODO DE PAGO**
Los pagos se realizarán del modo siguiente:
- El 70% en el plazo máximo de 30 días a partir de la fecha de concesión, en concepto de adelanto.
- El 30% restante en el plazo máximo de 30 días a partir de la fecha de valoración de la documentación justificativa reseñada en la base número 8.

**11.- INCUMPLIMIENTOS**
El cambio de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a modificaciones en la resolución de concesión. Se deberá reintegrar la cantidad recibida en los siguientes casos:
a. No justificar las actividades subvencionadas.
b. Incumplir las condiciones de esta convocatoria.

**12.- PROTECCIÓN DE DATOS.**
Los solicitantes de estas ayudas autorizan al Ayuntamiento de Esteribar a recabar los datos personales necesarios para que se cumplan los objetivos establecidos en la convocatoria.

A tenor del RGPD UE 2016/679, de 27 de abril, le informamos que el Ayuntamiento de Esteribar como responsable del tratamiento de los datos de carácter personal que se recaban para acceder a esta

hirugarrenei lagatzea, legezko betebeharra izan ezean.

Era berean, jakinarazi nahi dizugu datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubidea duzula, eta eskubide hori erabili ahal izango duzula Esteribarko Udaleko Erregistro Orokorrera joz (Orreaga etorbidea 13, Zubiri)

**13.- ARAUDIA**

Deialdi hau dokumentu honetan jasotako oinarrien arabera arautuko da, eta, bertan aurreikusi gabeko alderdiei dagokienez, honako arau hauetan ezarritakoaren arabera:

-Udal diru-laguntzak emateko ordenantza (50. NAO, 2005eko apirilaren 27koa)

- Esteribarko Udalaren 2023rako aurrekontua betearazteko oinarriak eta, osagarri moduan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

-Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

-2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

-13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa, eta osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra.

-R.D. 887/2006 (Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua)

**14.-HELEGITEAK**

Oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, honako errekurtso hauek jar daitezke, aukeran:

• Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio-egintza gauzatu duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta biharamunetik hasita.

• Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

• Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Esteribarren, sinadura elektronikoaren datan

convocatoria, efectuará el tratamiento de los mismos únicamente para los diferentes trámites relacionados con la misma, no estando prevista la cesión de datos a terceros, salvo obligación legal. Asímismo, le informamos de su derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición, que podrá ejercitar dirigiéndose al Registro General del Ayuntamiento de Esteribar (Avda. Roncesvalles 13, Zubiri)

**13.- NORMATIVA REGULADORA**

La presente convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento, y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa:

-Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones municipales (BON N.º 50, de 27 de abril de 2005)

-Bases de ejecución del Presupuesto del Ayuntamiento de Esteribar para el año 2023 y supletoriamente la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

-Ley Foral 6/1990 de Administración Local de Navarra.

-Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.

-Ley Foral 13/2007 de la Hacienda Pública de Navarra, y de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria.

-R.D. 887/2006 (Reglamento de la Ley General de Subvenciones)

**14.- RECURSOS**

Contra estas bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

- Recurso de Reposición ante el órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.
- Recurso de Alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo del mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- Recurso Contencioso Administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

En Esteribar, en fecha de firma electrónica